



2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure ideia eta enpresa, **publiko** mota **zehatz** bati zuzenduta dago.



Gure produktuak, oro har **ingurumena errespetatzean eta kutsadura ez sortzean** interesaturik dauden pertsoneri zuzenduta daude, azken finean, **ingurumena hobetzea** delako gure helburu nagusia.

Bezeroak enpresa guztietan oso garrantzitsuak dira, baina gure enpresaren kasuan funtsezkoak dira, izan ere, enpresa ez litzateke aurrera aterako bezeroek **birziklatutako botilengatik** ez balitz. Bezeroek ekarritako beirazko botilak enpresaren baliabide nagusia dira, beraz, birziklatzean interesaturik dauden bezeroak behar ditugu.



Gure bezeroak **hiru** taldetan sailka ditzakegu:

1. Birziklatzeko botilak ekarri eta produktuak erosten dituztenak.
2. Birziklatzeko beira soilik ekartzen dutenak.
3. Gure produktuak soilik erosten dituztenak.

Gure merkatu mota, bezeroen segmentazioaren arabera, **nitxo** **osatutako** merkatua da, bezero oso zehatzak eta bereizita dituen merkatua delako, balorezko proposamenak, banakako kanalak eta bezeroarekiko harremanak hartzailearen neurria diseinatuta egoten direlako.